

# **Aralarren II. Biltzarra Ezkerretik Independentziara**

**ARALARren**

**ILDO**

**POLITIKOA**

Donostian, 2004ko azaroaren 14an

## **A) BURUJABETZA**

---

### **1.- EUSKAL KOMUNITATE IDENTITARIOA**

ARALAR Euskal Herria berreraikitzearen aldekoa da. Euskal Herriak berezko nortasuna eta ondare historiko, sozial eta kultural berezia ditu; balio identitario komuneko komunitatea da eta aniztasunean eta desberdintasunaren errespetuan oinarritzen da.

Identitatea eta aniztasuna osagarriak dira. Aniztasunaren errespetutik soilik (horren lekuko dira Lurralde Historikoak, migrazio aldaketak eta genero, iritzi eta erlijio erreferentziak) indartuko da euskal identitatea; izan ere, hori baita bere subiranotasunaren oinarria.

Gure ondarea –hala historikoa eta soziala, nola kulturala eta linguistikoa– berreskuratzearen aldekoak gara, eskubideetan eta ekintzetan oinarrituta, eguneroko jardunaren bidez, bai herritar bakoitzak bai maila kolektiboan, betiere gure ondarea suspertzeko. Identitatea berreskuratzeko ezinbestekoa da gure hizkuntza gizartean eta ekonomian berdintasunez hedatzea

### **2.- EUSKAL HERRIAREN SUBIRANOTASUNA**

ARALARrek Euskal Herriaren autodeterminazio eskubidea aldarrikatu eta defendatuko du (independentziaren aukera tinko defendatuz), gure herriaren berezko eskubidea izateaz gain, gatazka gainditzeko ezinbesteko urratsa den neurrian. Horretarako, aldarrikapen kanpainak, mobilizazio soziala eta indarrak metatze aldera egindako harreman lanak egingo ditugu, bai Euskal Herriko zein estatuko alderdi eta eragileekin. Unea iritsita estatuko botereek autodeterminazio eskubidea gauzatzea eragotziko baligute, desobedientziaren eta mobilizazio sozial baketsuaren bidean euskal gizartearen gehiengoak bat egin zezan egingo genuke lan.

### **3.- LURRALDE TASUNA**

Euskal Herriaren konstituzio konfederala proposatuko dugu, egungo eztabaida osatzeko eta Europan txertatutako Euskal Estatu independente eta konfederatuaren ereduaren adierazpen ideologikoa izateko. Horretarako, egungo marko juridiko-politikoetatik abiatuko gara, horiek gainditu eta erabaki gune subirano bihurtzeko. Ezkerreko indar independentistek Autodeterminazioaren auziari egiten dizkieten proposamenek honako faktore hauek hartu behar dituzte kontuan: bai gure herriaren oinarri diren loturak indartzea, bai Euskal Herriaren aniztasuna eta egoera politiko, indar-korrelazio eta erritmo eta erabaki gune desberdinak daudela aitortzea.

### **4.- NAZIO GARAPENA**

Indar abertzaleek sustaturiko ekimenak eta foro soberaniazaleak bultzatzea eta/edo haietan parte hartzea, hauek eraikuntza nazionalaren beharraz kontzientzia hartzea helburu dutenean eta bidea elkarrekin eta adostasunak lortuz egiteko asmoa dutenean, dela Nazio Garapenerako Biltzarra, Udalbiltza, Batera, etab. Kasu bakoitzean analisisa egingo da eta gaitasun kritikoari eutsiko zaio alderdi bezala.

### **5.- ESTATUTUEN BIDEA ETA EMAITZA POLITIKOA MURRITZA DA**

Euskal Herriaren subiranotasun parametrotan kokatzen ez diren eta Euskal Herriaren lurraldetasuna aintzat hartzen ez duen estatutua aldatzeko edozein proposamenen aurka dago ARALAR; hau da, proposamen horiek honako hau jaso behar dute esplizituki: erabakia EUSKAL herritarren esku dagoela soil-soilik, beti ere, EAeko, Nafarroako eta Iparraldeko erritmoak errespetatuz.

## 6.- “IBARRETXE PLANA”

Ibarretxe Planari kritika eraikitzailea egingo diogu. Plan horri zilegitasun demokratikoa aitortzen diogu baina ARALARren babesa ondorengo ezinbesteko SEI arazo hauen arabera baldintzatuko dugu:

A- **Eduki sozialez eta ekonomikoz hornitzea** sindikatu abertzaleek eta gizarte mugimenduek aldarrikatutakoaren ildotik. ARALARrek Eusko Legebiltzarrerara egingo diren hurrengo hauteskundeetan formulatuko du eduki sozial eta ekonomiko hori; proposamen horretan, berezko barne egituraketa sozialeko markoa jasoko da, Eusko Jaurlaritzaren egungo politikari alternatiba gisa.

B- Subiranotasun eta etorkizun ikuspegia lurraldetasunaren helburuari laguntzeko. Erabakia euskal herritarren esku dago. Ezinbestekoa da gizarteari galdetzea, inolako baldintzarik eta mugarik gabe, eta eztabaida horretan eragile politiko, sindikal eta gizarte mugimendu guztiek parte hartzea, bai eta herritarrek ere.

C- **Konfrontazio demokratikorako borondate** zintzoa, hori ahalbidetuko duten aliantza subiranista eta progresisten aukera eraikitzen ahaleginduz.

D- Euskararen tratamenduarekiko duintasuna, beste edozein hizkuntzaren adinakoa, eta gaztelerak duen garapen mailara iristeko behar duen araberakoa.

E - Euskal Herriko sakontze demokratiko eta bake prozesuarekiko konpromisoa.

F- Herri Galdeketa agintaldi honetan egiteko hartutako konpromisoa bete egin behar da.

## 7.- UDALBILTZA

Beharrezkoa da Euskal Herriak bere identitatea ordezkatzen duten erakundeak izatea. ARALAR-ek **Udalbiltzak batzea** aldarrikatzen du, hautes-emaizta errealetan oinarrituta; erreferentzia instituzional nazional horretan nahi duenak hartuko du parte. Kultur elementu nazionalen alde egiteko funtzioa izango du, eta, esate baterako, euskal naziotasunaren akreditazio ofizialak emango ditu, gaur egungo ekimen pribatu eta alderdikoiek ez bezala. Horrez gain, Euskal Herri osoan gizarte eta lurralde eraikuntzarako ekimenak egiteko funtzioa ere izango du.

## 8.- NORGEHIAGOKA POLITIKOA ETA ERANTZUN SOBERANISTAK

ARALARrek gure herriak existitzeko, garatzeko, manifestatzeko edo antolatzeko duen eskubidearen aurkako erabakien edo egoeren aurrean, norgehiagoka politiko ekimenak, desobedientzia zibilekoak eta gisako erantzunak sustatuko eta bultzatuko ditu era adostuan.

## 9.- GIZARTE-AUTOANTOLAKETA

Konfrontazio, gizarte desobedientzia eta erresistentzia ekintzez gain, alor guztietan gizarte-autoantolaketarako esparruak sortzeko eta sortarazteko ahalegina egingo du ARALAR-ek, bai alor ekonomikoan, bai gizarte, kultura, hezkuntza eta beste hainbat alorretan, bai eta **euskal komunikazio esparruan** ere. Egitura eta espazio horiek guztiek –esate baterako, irakaskuntza esparruek, komunikabideek, euskararen aldeko gizarte mugimenduek eta antzeko beste batzuek, herri-ekimenetik sortutakoak, batik bat– ARALAR-en babesa jasoko dute ezker zein nazio-ikuspegitik onuragarriak badira eta gizartearen aniztasuna islatzen badute.

Eraikuntza nazionalerako erduei buruzko eztabaidan edo konfrontazio, gizarte-autoantolaketarako esparruen edo erresistentzia egituren sorrerari dagokionez, ikuspegi demokratikoz jokatu behar du ezkerak; hau da, gizarte osoa aintzat hartuta eta aniztasuna eta errealismo ekonomiko eta soziala defendatuz. Hori guztia kontuan hartuta, ez du bere jarduera eta eragina eredu alternatiboen eraikuntzara mugatu behar.

## **10.- IDENTITATE NAZIONALA, EDUKIAK ETA IKURRAK**

ARALAR-ek ere euskal identitatearen nortasuna eta ezaugarriak eta **elementu sinboliko** guztiak babestuko eta sustatuko ditu, hala nola: ikurrina, Euskal Herriko kirol selekzioak, gure herriaren identifikazio historiko eta kulturala, bai alor instituzionaletan, bai banakako eta pertsonaletan.

## **11.- IPARRALDEKO POLITIKA ABERTZALEA ETA ABERTZALEEN BATASUNAREKIN HARREMANAK**

ARALAR-ek IPARRALDEA Euskal Herriko ezinbesteko zatia dela aitortzen du eta han bestelako estrategia garatzea errespetatzen du, estatuak desberdintasunak sortu dituztelako eta indar-korrelazioa eta tradizio politikoak desberdinak direlako.

**11.1.-** ARALARek bere jardun-esparrua Hegoaldea dela berresten du.

**11.2.-** ARALARek berresten dio ABERTZALEEN BATASUNARI lehentasunezko harremanak izateko proposamena. Zentzu honetan, ABRI egitura iraunkor bat eratzea proposatuko zaio non egoeraren analisiak eta proposamen ideologikoak landuko diren. Bestetik, Hegoaldetik Iparraldeko proposamen estrategikoak babestu egingo ditugu horiek dituzten erritmoak errespetatuz: Euskal Departamentua, euskararen ofizialtasuna, Nekazaritza Ganbera, Unibertsitate distritoa, presoak hurbiltzea eta proposamen horiek sustatzeko eta baiesteko herri-galdeketa.

## **B) EUSKAL HERRIKO ETA EUROPAKO EZKERRA**

### **12.- EUSKAL HERRIAN EZKERREKO ERAKUNDEA SORTZEA**

ARALAR-en helburu politikoa **Euskal Herrian ezkerreko alternatiba sortzea** da, betiere gure **herriaren gehiengo soziala batzeko ahalmena** izango duena. Ezkerreko esparru hori –gaur egun, estatu izaerako beste indarrek osatzen dute, maila handian– da, hain zuzen ere, ARALAR-en erronka handia. Helburu hori lortzeko, ikuspegi irekia, anitza eta modernoa proposatuko du. ARALAR-ek zeharkako jarduera politikoa sustatuko du beste indar politiko eta sozial batzuekin, ezker subiranistako indarrekin, batez ere.

ARALAR bere izaera sozialista azpimarratzen ahaleginduko da aldioro iritzi publikoaren aurrean. Horregatik,, ez dugu zalantzarik izango geure burua sozialistatzat kalifikatzeko orduan gure agerraldietan. Sozialismoa ez da independentismoarentzat galga eta ARALARrek garbi utzi behar du hori.

### **13.- BERRITUTAKO EZKERRAREN ESTILO POLITIKOA**

Ezkerraren balio berriak mugimendu sozialen aldarrikapen borrokan eta gizartearen masa kritikoetan du sorburua. Gure alderdia ezkerrekoa denez, gure oinarri bai ideologikoak eta baita ekintza politikoak ere borroka hauetan dute jatorria. Hala ere, ezker berritzaile garen aldetik ezin gara iraganeko akats berberetan jausi eta borroka eta aldarrikapen hauek xurgatu, instrumentalizatu eta disolbatuko dituen egitura politikoa sortu. ARALARretik borroka sozial horiek gure egiten ditugu hiritarren parte hartzea sustatu eta planteatzen duten politika forma berriak sustatuz, hiritar kritikoaren ahotsa berreskuratu eta duten erabakitze botereari sistema demokratikoan dagokion lekua emanaz. ARALARrentzat lehentasunezko helburuak izango dira benetako partehartzea sustatzen duten legeen lorpena (ILP legea, erreferendum legea, udaletxe eta diputazioetan parte hartze aurrekontuak arautuko dituen dekretua, partehartze arautuko duten foro tematikoen dekretua, etab.).

#### **14.- SINDIKATU, GIZARTE MUGIMENDU ETA MUGIMENDU SEKTORIALEKIN HARREMANAK**

ARALAR-ek indar politiko, sindikal eta gizarte mugimenduz osatutako plataformetan parte hartzea edo haiek sustatzea bultzatuko du, batez ere, **politika sektorial desegokiak salatzen dituztenak**: AHT, Boroa, pribatizazio politikak, azpi-kontratazioak, azpiegiturak, etxebizitza, oinarritzko errenta, festa herrikoiak, espazio publikoak aldarrikatzea (kalea hartzea), Itoitz eta abar.

#### **15.- EZKERREKO POLITIKAK EKONOMIA, GIZARTE, KULTURA, HEZKUNTZA, LAN ETA GIZARTE ONGIZATE ARLOETAN**

ARALAR-en jarduera politiko guzti-guztiak ezkerreko baloreak babestea lehenetsiko du; hala erakundeetako jarduerak, nola jarduera sozialak eta sindikatuekin, mugimendu sektorialekin eta gizarte mugimenduekin lotutakoak. Eskubide zibil guztien aukera demokratikoen defentsa erradikala, giza eskubideen defentsa erradikala, pertsonen eta herrien berdintasunaren defentsa erradikala, arlo publikoaren defentsa, ondare publikoaren defentsa, oreka ekologikoaren eta jasangarritasunaren defentsa, globalizazio kapitalistari alternatiba proposatuz, merkatuaren jarduera itsua erregulatzeke eta jasangarritasun handiagoko eskenatokitara bideratzeko. Ekonomia jasangarriaren aldeko hautua eginez, ingurumena eta gizartea bateratuz, gure iritziz ekonomia (hau da, baliabide naturalak gizakion jardueren bidez ondasun eta zerbitzu bihurtzea, gizakion eta gizartearen beharrak asetzeko) soziala eta ekologiaren ikuspuntutik eraginkorra izan behar delako, betiere baliabide ez-berriztagarrien gehiegizko kontsumoa saihestuz. Horregatik guztiagatik, gizarte eta ingurumen irizpideak kontuan hartu beharko dira merkatu politketan, horri buruzko legerian eta finantzazio programa eta sistemetan. Aurrerapena hazkunde ikuspegitik neurtu beharrean, jasangarritasun adierazleen bidez neurtzera igaro beharra dago.

**15.1.-** ARALAR-en iritziz, irakaskuntza, osasuna, kultura eta gizarte ongizatearen zerbitzuak jasotzea eskubideak dira, ez eman egiten den zerbait. Horren ondorioz, zerbitzu horien kudeaketa publikoa, doantasa eta unibertsaltasuna defendatuko du eta pribatizazio prozesuen aurka egongo da.

**15.2.-** ARALAR-ek langabeziaren aurka, gazteen eta emakumeen lanaren ezegonkortasunaren aurka eta egungo Atzerritartasun legearen aurka lan egingo du.

**15.3.-** ARALAR-ek etorkinak sozialki eta ekonomikoki integratzeko politikaren aldeko apustua egiten du eta errealitate bihurtzeko egingo du lan. Atzerritartasun legearen aurkako jarrera adieraziko du.

**15.4.-** Berdintasunean oinarritutako emakumearen identitateaz:

- A) ARALARrek ekimen positiboetan oinarritutako politikak bultzatuko ditu ideologia eta kultura arloetan (gizartearen matxismoa hezitze aldera).
- B) ARALARrek parekotasun eskubidearen alde lan egingo du bai erakunde egituretan (zerrenda parekideak) bai erakunde politiko eta sindikaletako barne egituretan.

**15.5.-** Ekologiari dagokionez:

- A) ARALARrek tinko egiten du proiektuan edo egitear dauden errausgailuen aurka eta lehendik lanean ari direnak gelditzeko proposatzen du.
- B) ARALAR garraiobide pribatua bultzatu asmoz pentsaturiko makroinbertsioen aurka dago (A8, Supersur) eta garraiobide alternatiboa, kolektiboa eta trenaren bidezkoa bultzatuko ditu. Era berean. AHTren aurka dago proiektatuta degoen bezala.

## 16.- IMPERIALISMOA ETA MILITARISMOA

Amerikako Estatu Batuetako kanpo doktrina berriak –oinarri inperialista eta militarista handikoa, eta “prebentzio gerra” gisako printzipio arbuigarritan oinarrituta– eraso inperialista ugari eragin ditu; esaterako, Irakeko inbasioa eta Ariel Sharonen gobernuak palestinarren aurkako eraso sionista larriagotzea. ARALAR-ek inperialismoa eta militarismoa salatu eta horien aurka borrokatuko da foro instituzionaletatik eta gizarte zibiletik, herrien eta estatuen arteko harreman politika sustatuz. Harreman hori elkarrenganako errespetuan, berdintasunean, herrien subiranotasunean eta nazioarteko zuzenbidea bermatzen duten erakundeak (NBE, Hagako Auzitegia...) indartzen, demokratizatzen eta duin bihurtzen oinarrituko da.

## 17.- EZKER SUBIRANISTAREN FOROA

ARALAR-ek ezkerreko euskal foro zibilaren antolaketa sustatu edo bultzatuko du indar politiko, sindikal eta sozialekin batera. Ezkerraren diskurtso eta jarduera berria aztertzea eta praktikara eramatea sustatuko du, puntu komunak bilatuz, bai eta balizko lankidetzak aukerak ere; beti ere, komunikaziorako lotura iraunkorra sortzen ahaleginduz. Lotura horren oinarri ideologikoa eskubide indibidual eta kolektibo guztien defentsa izan behar du eta indarrak batzea izango da estrategia horren elementu komuna, helburu hauek lortzeko:

- A) Gizarteko sektore kaltetuenen eskubide sozial, laboral eta politikoen alde lan egitea.
- B) Ezkerreko jarduera jorratzea gobernuen politika neoliberaleri, desarrollistei, globalizatzailerari eta banakoen eskubideak eta eskubide kolektiboak murrizten dituzten politikari aurre egiteko.
- C) Garapen eredu eta lurraldearen egituratze jasagarria ezartzea.
- D) Autodeterminazio Eskubidea gauzatu ahal izatea.
- E) Lurraldetasunaren helburuan aurrerapenak lortzea.
- F) Gatazka eta indarkeria egoera gainditzea.
- G) Ekimen politikoa eta soziala erabiltzea soilik.

## 18.- NAFARROA BAI

ARALAR-ek **NAFARROA BAI Nafarroako hautes-plataforma abertzale, progresista eta demokratikoaren aukera** mantentzeko, eztabaidatzeko eta sustatzeko konpromisoa hartzen du, betiere koalizioa osatzen duten indar guztiekiko leialtasunezko jarrera zintzoari eutsiz. Helburu hauek izango ditu:

- A) Nafarroako euskal identitatea defendatzea eta sustatzea.
- B) Gure etorkizuna erabakitzeko eskubidea eta ahalmena aitortzea.
- C) Gure identitate ikurrak (euskara, kultura, sinboloak...) zehazten dituzten eskubide indibidualak eta kolektiboak askatasunez gauzatu ahal izatea.
- D) Gure gizartearen aniztasuna errespetatzea.
- E) Askatasun demokratikoen defentsa erradikala.
- F) Nafar gehienentzako onuragarriak izango diren politika aurrerakoiak eta sozialak sustatzea.
- G) Demokraziari eta herri-borondateari errespetu osoa, herrien autodeterminazioan edota hautaturiko aukera politikoan adierazten dena, legalizatua egon ala ez.

Beste indar politiko batzuk –**Ezker Abertzale Ofiziala, batez ere**– koalizioan sartzeko **aukera irekita mantentzea.**

ARALAR-ek NA-Bairen konpromiso programatiko guztiak defendatuko ditu, baina koalizioaren osaketa interklasista kontuan hartuta, **bere autonomia politikoari eutsiko dio,**

ezkerreko indar politikoa garen neurrian, defendatu beharreko proposamenak eta ekimenak defendatu ahal izateko.

## **19.- EUSKARA**

Gure hizkuntzaren defentsaren alde egingo dugu, erabilera lehenetsiz –barruan zein kanpoan– Euskal Herriaren identitate ikurra delako, eta, beraz, ARALAR-en jarduera kulturalerako eta politikorako elementua.

Euskara aniztasunean jarduteko aukera demokratikoa da. Eta ez errealismo ikuspegi batetik soilik, aukera askatasun horrek Ofizialtasun Estatusa eskatzen du.

## **20.- EUROPA SOZIAL ETA DEMOKRATIKOA**

ARALAR-ek pertsonen eta herrien eskubideak oinarri-oinarrian izango duen Europa eraiki nahi du. Europaren eraikuntzak Europako herrien autodeterminazio eskubidea, balore demokratikoetan sakontzea, giza eskubide guztien defentsa, eskubide sozialen defentsa, jasangarritasuna, globalizazio liberalaren kontrako borroka, antimilitarismoa eta munduko herri guztien arteko elkartasuna izan behar ditu oinarrian. Bide horretan ARALAR-ek gainerako Europako herrien ordezkari politikoekin elkarlanean aritzea bilatuko du.

**20.1.-** Europako Batasunean onartu berri den Itun Konstituzionalak huts nabarmenak ditu aurreko parrafoan aipatutako printzipioen ikuspegitik, batez ere, eskubide nazional eta sozialen alorrean. Horregatik guztiagatik, ARALAR-ek ezezko botoa bultzatuko du Europako Itun Konstituzionalari buruz Estatuan egingo den Erreferendumean.

**20.2.-** Europako Konstituzio Itunaren proposamenari Ezezko botoa emateko indar abertzaleen eta ezkerreko indarren arteko akordiorik ahalik eta zabalena lortzen ahaleginduko da ARALAR

## **C) SAKONTZE DEMOKRATIKOA ETA BAKEA**

### **21.- ASKATASUN DEMOKRATIKOAK**

#### **Askatasun demokratiko GUZTIEN aldeko konpromiso zorrotza.**

ARALARrek bere jarrera tinkoa agertu nahi du pertsonen eta erakundeen aurkako erasoen aurrean, ideologia, militantzia politikoa edo beste edozein izanik ere eragilea.

Horregatik arbuiatu egiten ditugu batetik Partiduen Lege antidemokratikoa aplikatzeak, zigorrak handitu eta osotasunean betetzeari buruz egindako Kode Penalaren erreformak, presoen sakabanaketa politikak, inkomunikazio erregimenak eta torturaren erabilerak dakartzaten ondorio nahasgarriak eta, bestetik, berdin hiritarren ordezkariak diren norbanakoen eta taldeen aurkako mehatxu eta erasoak ere. Bi arazo hauek era onartezinean baldintzatzen dute herri honetako hauteskunde errealitatea.

Honek guztiak eragindako ondorio txarrei aurre egiteko konpromisoa hartzen dugu:

- A) Bide guztiak irekiz hauteskunde prozesuetan irtendako ordezkariak errealia era duinean gauzatu dadin.
- B) Beste indar politikoei KONPROMISOA HARTZEKO PROPOSAMENA eginez hori lortzeko (Udal Kontseiluak).

- C) KONPROMISOA, ahalik eta salaketa tinko eta zabalenak eginez Euskal Herrian eta munduan norbanakoen eta taldeen aurka burutzen diren askatasun murrizketen aurrean, eta hauen ondorioak konpontzeko bideak eta bitartekoak jarritz.

Esandakoagatik, ondorengo lema indar guztiz defendatuko dugula errepikatu nahi dugu: "Pertsona guztiak, ideia guztiak, proiektu guztiak".

Irizpide honi jarraituz, ARALARrek berretsi egiten du ez dagokion kargu publikorik ez hartzeko konpromisoa, zinegotzietatik hasi eta parlamentuetako balizko aukietaraino, kasu berezietan izan ezik, Leitzako zinegotzi karguarekin egin genuen bezala, legez kanporatzearen ondorioz, indar abertzaleen edo ezkerrekoen multzoari dagokion ordezkariatza arriskuan baldin badago.

ARALARrek hitzetatik ekintzetara pasatzeko konpromisoa hartzen du, Alderdien Legeak hauteskunde ordezkariatza formalean dakarren erasoari aurre egitekoa demokrazia partehartzaileko formulekin, udal kontseiluak, hain zuzen, non legez kanpo utzitako indarren ordezkarien parte hartze erabakitzailea bermatuko den.

## **22.- GATAZKA GAINDITZEA, OINARRIZKO HELBURUA**

Gatazka gainditzeko edo normalizazio demokratikoa lortzeko helburua edozein gizarte garaturen oinarritzko helburu politikoetako bat izan ez ezik, ezinbestekoa da Euskal Herriarentzat. Hau da ARALAR-en jardura politiko nagusietako bat. Hori dela eta, arlo honetan berezko ekimenak sustatu beharko ditugu, eta beste eragile batzuek antolatzen dituzten ekimenetan parte hartu beharko dugu –baita gure ikuspuntua kritikoa den ekimenetan ere– eta batez ere, alderdi anitzen arteko normalizazio politikorako ekimenak direnean. ARALAR-ek parte hartzen du bai ELKARRI-ren ekimenean, bai eta Nazio Eztatidaguneak egin duen alderdien mahairako proposamenean ere. ARALAR-en ekarpena gainerako indar politikoen ekarpenaren adinakoa izango da, beste indarrekin elkartuta egingo dugu lan, eta gainerako ekarpenekin bat egin beharko du.

**22.1.-** Sakontze Demokratikoa eta Bakeari buruzko txostena berresten du ARALAR-ek, hori baita gizarteari eta arlo horretan sor daitezkeen ekimenei egiten diegun proposamena. Ildo horretatik, berriro eskatzen diegu estatuari eta ETari bakea lortzeko urrats sendoak eta erabakigarriak emateko.

**22.2.-** Estuari dagokionez, distentsio politika bati ekin diezaion eskatzen dio ARALAR-ek; ezinbesteko urratsak emateko; esate baterako, euskal presoak Euskal Herrira hurbiltzea, kartzela eskubideak berrezartzea eta alderdi politikoen lege bertan behera uztea.

## **23.- GATAZKAREN KONPONKETAREKIN LOTUTAKO EKIMEN POLITIKOAK**

Gatazka gainditzeko behar-beharrezkoa da gatazkak eragin dituen BIKTIMEKIKO BEREKIZIKO ARRETA izatea. ARALAR indarkeriak eragindako kalte guztiak aitortzearen eta leuntzearen eta ordaintzearen aldekoa da. AMNISTIA da indarkeria politikoa erabili den gatazka guztien normalizazio politikoa ikurra eta froga. Ildo horretatik, amnistia euskal gatazka gainditzeko eta normalizazio politikoa lortzen ari den froga eta ikurra izango da.

**23.1.-** ARALAR-ek preso politiko guztien Amnistia aldarrikatzen du, inolako murrizketarik gabe. ARALAR, gainera, indarkeriak eragin dituen kalte guztien konponketaren aldekoa da, indarkeriaren kalte horiek zuzenak ala zeharkakoak izan diren kontuan hartu gabe..

**23.2.-** Presoen eskubideen defentsa edo presoekiko eta haien senideekiko elkartasun adierazpenak ez dira gatazka gainditu arte albo batera utzi beharreko helburuak, egunero praktikara eraman beharreko jarduerak baizik. ARALAR-ek espainiar eta frantziar estatuetako

kartzela-politika gaitzesten du eta euskal preso guztiak etxetik hurbil egon behar dutela aldarrikatzen eta, oro har, kolektibo horren alde antolatzen diren mobilizazioetan parte hartuko du, modu ireki eta bateratuan antolatzen diren guztietan.

**23.3.-** ARALAR BATERA-ren antzeko plataformak sortzearen aldekoa da, Udalbiltza batzearen aldekoa den arrazoi beragatik.

**23.4.-** ARALAR-ek TORTURA desagerrarazteko indarrean jar daitezkeen ekimen guztiak bultzatuko ditu eta Amnistia Internazionaleak erakundeak egin dituen iradokizunak betetzea proposatu eta berretsi.

## **D) ELECCIONES AUTONÓMICAS DE LA CAV**

### **24.- PARTE HARTZEKO MODUA**

**24.1.-** ARALAR-ek datozen EAeko Hauteskunde Autonomikoetan parte hartzeko posizionamendu ideologikoa berresten du. **Ezkerreko aukera subiranista zibilaren proposamen argia** aurkeztea proposatzen du, ondorengo eta aldi bereko hiru ardatz hauen inguruan egituratuta:

- A) Planteamendu subiranista tinkoa, beharrezkoa balitz Estatuarekin konfrontazio demokratikoko eta gizarte desobedientziako prozesuak jorratzeko prest.
- B) Oinarrizko gaiei buruzko konpromiso esplizituak jasoko dituen ezkerreko programa; hala nola, irakaskuntza, osasuna, gizarte ongizateko zerbitzuak, etxebizitza, oinarrizko errenta eta gizarte eskubideak, pribatizazio politikak eta azpi-kontratazioak, azpiegiturak... Programa honek Euskal Herriaren barne egituraketa sozialerako eredu alternatiboaren nondik norakoak zehatuko ditu.
- C) Soil-soilik zibilak diren bideekin, giza eskubide guztien errespetuarekin eta gizartearen aniztasunarekin konpromisoa.

**24.2.-** Hiru ardatz hauen inguruan, eta egoera politikoari jarrera soberanista eta ezkerrekoen bidez erantzun beharrak eraginda, ARALARrek eraikuntza nazionalera eta sozialera bideratutako bere hauteskunde aukera eta programa proposatzen ditu. Jarrera honek akordio ahalik eta zabalena gauzatzeko bidea irekita utzi behar luke, aniztasunean eta menpetasun ezean oinarrituko litzatekeena. ARALARrek **EAJren ezkerrean dagoen gunean akordio zabala lortzea** proposatzen du, alderdi jeltzalea konpromiso soberanista garbia hartzera behartuko duena.

**24.3.-** Bestetik, erakundeetan zein gizarteko esparruetan ezkerreko aukera subiranista zibila gorpuzten joateko urratsak egiten jarraitu behar da. Hauteskunderen ondoren, bai Legebiltzarrean baita ordezkariak dugun gainerako erakundeetan ere, hori egiteko modua lantzen hasi behar da. Urratsak era askotarikoak izan daitezke eta elkarlana eta ekimen bateratuak bultzatzea izan beharko dute oinarrian, esaterako, elkarlanerako parlamentu hitzarmenak sina daitezke Eusko Legebiltzarrean ordezkariak duten ezkerreko indar autodeterministekin.

### **25.- HAUTESKUNDE PROGRAMA**

Programak elementu garrantzitsua izan behar du ARALARrentzat EAeko hauteskunde autonomikoei begira, bai hauteskunde eskaintza azaltzerakoan oinarri izango delako eta baita hauteskundeetan erabilgarria izango delako ere. Eta batez ere etorkizuneko ekimen politikoaren norabidea markatzeko, ARALARrek Euskal Herriaren eraikuntza nazionalerako eta sozialerako proposatzen dituen ildo nagusiak zehaztu egin behar dituelako. Zuzendaritzak programaren

zirriborroa egitea eskatuko dio hartara zuzendutako ponentzia bati, gero prozesu partehartzaile baten bidez onartzeko.

## **E) ARALARREN ANTOLAKETA ETA SUSTAPENA**

*(Oharra: Atal honek ARALAR-ek gizartearekin duen harremanean eragin nahi du; hau da, zernolako hedapena, garapena eta eragin-maila duen euskal gizartean. Ez da, beraz, estatutuekin lotutako gaitan sartuko)*

### **26.- KOMUNIKAZIO POLITIKA**

Bere helburu ideologikoak eta estrategikoak batez ere, gizarteari helarazteko gai izango den komunikazio politika sortu behar du ARALAR-ek. Komunikazioaren elementu originalak, freskoak eta modernoak sustatzeaz gain, behar beharrezkoa da zenbait atal ebaluatzea, berrikustea eta gaurkotzea.

### **27.- POLITIKA SEKTORIALA SUSTATZEA**

Eskubide zibilen aldeko mugimenduak, gizarte mugimenduak eta mugimendu sektorialak errespetatzeak eta sustatzeak, jarduera politikoa norabide horretan bideratzea eskatzen du.

Bai datozen hauteskudeei begira eta baita gerora barne funtzionamenduari dagokionean ere, Politika Sektorialak norabide egokian landu ahal izateko, “aditu” multzo bat osatuko da arloka (euskara, emakumea, ingurugiroa, ekonomia, osasungintza, hezkuntza, kultura, enplegua, turismoa, lurralde antolaketa, etxebizitza, etab.). Aditu hauen zeregina arlo bakoitzea jarraitu beharreko ildo nagusiak zehaztea izango da, erakundearen ordezkari publikoek beraien lnan instituzionalean erreferentzia gisa erabil ditzaten.

### **28.- LAU HERRIALDEETAKO EGITURAK IKUSPEGI KONFEDERALAREKIN INDARTZEA**

ARALAR-en **barne antolaketaren egitura** ARALAR-ek Euskal Herrirako duen ikuspegi eta proposamen konfederalarekin bat etorri behar da, bi elementu garrantzitsu bateratuz; batetik, gure herriaren batasuna eta, bestetik, herrialde bakoitzaren berezitasuna eta nortasuna errespetatzea eta haiek sustatzea.

Herrialdeen arteko harreman organikoak bultzatuko dira, horretarako bilera baterakoiak eratuz, esperientziak, aktak eta agiriak trukatzuz, edota ekimen bateratuak aurrera eramanez.

### **29.- NAZIOARTEKO HARREMANETARAKO EGITURAK SORTZEA**

Konpromiso internazionalista indartzea, munduko beste herrialde batzuetan garatzen dituzten erresistentzia eta justizia sozialeko estilo eta jarduerak ikasteko eta berriak sortzeko.

ARALAR-ek Porto-Alegren sortutako gizarte foroekin harremanak izatea eta haietan parte hartzea proposatzen dugu, esperientzia berriak jasotzen jarraitzeko eta Latinoamerikako, Afrikako eta Asiako ezkerreko mugimenduekin lan harremanak sendotzeko. Gure aldetik, lan ildo horiek Iparra-Hegoa elkarlan eta lankidetzaz politika zintzoa eta ausarta izan beharko lukete.

ARALAR-ek Iparra-Hegoa norgehiagoka betiketzearen aurkako salaketa eta borroka formulak garatzea lehenetsiko du; esate baterako, kanpo zorra bertan behera uztea, bidezko merkataritza harreman, Tobin tasa ezartzea, immigranteak hartzeko protokolo irekiak eta pertsonak askatasunez bidaiatu ahal izatea eskatuz.

Hurrengo hauteskundeak baino lehen eratuko den kargu, organo edo komisio berri bat arduratuko da gai garrantzitsu honetaz.

### **30.- GIZARTEAREN ZERBITZURA EGOTEA, EZKERREKO ERAKUNDE POLITIKOEN NORTASUN IKURRA.**

ARALAR, ezkerreko indar politikoa den heinean, elkartasuna, justizia soziala eta ekitatea errespetatuz, parte hartzen duen gizartearen arazo, itxaropen eta hutsuneekin konprometitua dago. Interes sozialeko gai eta arazo guztien gaineko informazio, trebakuntza, aholkularitza eta sustapen programak eta politikak sortu eta garatuko ditu; ARALAR-kide eta laguntzaileekin hasiko gara, eta gero, gizarte osoari eskainiko diogu gure lana eta zerbitzuak.

### **31.- GAZTE POLITIKA**

ARALARrek garrantzi handia ematen dio gazte politika demokratiko eta ezkerrekoari. Hau, ARALAR barneko antolakuntzan eta ekintza politikoan eta gizarteko zati horretara zuzendutako politika sektorialetan ere islatzen da.

Politika horren oinarriko elementuak honako hauek dira:

#### **31.1.- Barneko esparruari dagokionean:**

- A) ARALARreko gazteen antolakuntza autonomia, bai funtzionamenduari dagokionean eta baita beste gazte taldeekin egiten diren ekintzetan ere.
- B) Gazte taldeari laguntza eta babesa ematea, egitura, ekonomia eta politikari dagokionean eta programatzen dituzten formazio eta informazio ekintzetan laguntza ematea.

#### **31.2.- Ekintza sozialari dagokionean:**

- A) Politika sektorial desberdinetan talde sozial honi dagozkion beharrei-etxebizitza, lana, etab.-arreta berezia eskaintzea
- B) Gure herriko bizitza sozial eta politikoan gazteen parte hartzea bultzatu eta sustatu, eta espazio alternatiboak sortzea.

Gizarte-administrazioa harremanetan, demokrazia parte hartzailea formulazio bikoitz moduan ulertzen dugu: ekimen sozialetan autogestioa eta baliabide eta printzipio publikoen kogestioa.

### **32.- ERANTZUN POLITIKA ETA GIZARTE DESOBEDIENTZIA**

ARALAR-en nortasun-ikur sozialak, aukera ideologikoez gain, demokrazia parte-hartzailearen, injustizien aurkako erresistentzia zibilaren eta botere-politikari aurre egingo dioten egiturak sortzearen aldeko jarrera izan behar dute. Erantzutearen politikaren azken baliabidea gizarte desobediencia da (justifikatuta eta publizitatuta), eta desobediencia zibilaren taxuketa eta bultzapena ARALAR-en zeregin nagusizat jotzen ditugu.

ARALAR-ek gizarte desobediencia sustatzeko, indartzeko eta –beharrezkoa balitz– praktikatzeko konpromisoa hartzen du. Egoerak horretara behartuko balu, ARALAR gai izan behar da edozein intsumisio eta gizarte desobediencia ekimen lideratzeko.

### **33.- KOKUDEAKETA, DEMOKRAZIA PARTEHARTZAILEAREN FORMULA ETA POLITIKA PARTEHARTZAILERAKO PROPOSAMENA.**

ARALARrek, Ezker Sozialaren ikuspegitik, gaur egun erabakiak hartzeko ematen den prozesua aldatzearen alde jokatu du; izan ere, egun, hauteskunde batzuetan aukeratua izateak ematen duen zilegitasunetik, gizartearen zati handi baten aurkako erabakiak hartzen dira. Era legitimoan aukeratua izateak ez du esan nahi herritarrek bat datozela hartzen den erabaki bakoitzarekin, eta beraz, ezinbestekoa da herritarren adostasuna.

ARALARrek dagoen erakunde guztietan hiritarren parte hartzeko egiturak sortzea bultzatu du, foroak, batzorde mistoak, etab., zeinetan hiritarrek, ukitzen dituzten arazoez iritzia emateaz gain, erabakitzeko ahalmena izango duten, politikoekin batera. Gai honek garrantzi berezia du erakunde publiko desberdinetako aurrekontuak egiteko eta garatzeko orduan. Herri-kontsultaz baliatzea ere defendatu du, hauek gauzatzeko dauden era ezberdinak kontuan izanda, garrantzi sozialeko erabakiak direnean.

### **34.- ARALAR FUNDAZIOA SORTZEA**

Alderdiek egiturak eta bitartekoak behar izaten dituzte haien helburuak, batzuetan, modu zuzenez ez bideratzeko. Hori dela eta, ARALAR-ek FUNDAZIO bat sortuko du hainbat azterketa, ikerketa eta trebakuntza-, informazio- eta dokumentazio-funtzio egiteko.

### **35.- AZTERKETA SOZIAL ETA POLITIKOAREN EGITURA, BAI ETA ALDERDIAREN INFORMAZIO EGITURA ERE**

ARALAR-en Hegoaldeko Zuzendaritzari izaera politikoko azterketa, informazio eta ikerketa egitura sortzea eskatuko zaio, zenbait erabaki politiko hartzeko beharrezkoak diren aurreikuspenak egin ahal izateko.

Donostian, 2004ko azaroaren 14an